# Manikulak

Manicula eta ez manicura da oraingoan jorratuko dugun mini-gaia. Minia, askorik ez garelako luzatuko eta minia, halako tamaina dutelako. Maxia, berriz, batzuetan, horien kalitatea. Eskutxoak, hala deituko diegu euskaraz, ideiaren bat, esaldiren bat... markatzeko eta nabarmentzeko erabiltzen ziren. Liburua zabaldu, orriak arin batean pasatu eta eskutxoa agertzen zen bakoitzean irakurleak bazekien pasarte horretan gelditzea merezi zuela. Horregatik, eskutxoak, jabea ezagutzen badugu, informazio iturri ezin hobea dira.

Antza denez, lehenengo "manicula"-k espainolak izan ziren eta XII. mendeko liburuetan agertu ziren -eta dira-. Eskutxook bizi luzea izan zuten, oraindik XIX. mendeko liburuetan aurki ditzakegu nekez bada ere. Gaur egun ez daude modan, baina nork daki...

Lekeitiarrok ere geure manikulak ditugu, paper artean ezkutatuta, baten batek askatuko dituen egunaren zain. Gu horien atzetik ibili gara, baina ziztrinak dira, erraz ihes egiten dute. Hemen erakutsiko ditugunak Udaletxeko artxiboan eta Kofradiakoan aurkitu izan ditugu; ez gara ibili elizako paperetan, ezta artxibo edo liburutegi pribatuetan ere (liburuan zehar agertu izan direnak ere gureak dira).

Ez dira gure perlak batere ohizkoak, beraz, goza ezazue.

Gai honetaz apur bat gehiago jakiteko –ez dago ia ezer ere ez- William Sherman duzue.



## Kanpokuak












# Geuriak, etxekuak

A. I.